



**LEGAZPIKO
UDALA**

KORRIKA antolatzen duen taldeari,

Joan den urteko uztailean gutuna jaso genuen, 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era, KORRIKAK Euskal Herri osoa zeharkatuko duela esanez.

Gaur goizean, komunikabideetan ikusi dugu KORRIKAK egingo duen ibilbidea eta, lehen aldiz, Legazpitik igaroko ez dela eta Legazpira iritsiko ez dela ikusi dugu.

Harrituta, triste eta etsipenez jaso dugu albistea; izan ere, Legazpiko herriak beti oso modu aktiboan hartu duelako parte KORRIKAREN edizio guztietan. Herritarrek dena eman izan dute euskararen aldeko ekimen berezi, bakan eta estrategiko horretan, bestelako ekimenetan bezalaxe: euskararen aldeko ekimen desberdinak, Euskaraldia,

Legazpiko Udalak ere, herritarrekin batera, beti bultzatu izan du KORRIKA eta ekimen horrek islatzen duena: euskalduntze-alfabetatzearen garrantzia eta euskararen erabilera areagotzearen beharra.

KORRIKA herritik igarotzean giro bikaina sortzen da eta ezinbestekotzat jotzen ditugu horrelako ekimenak euskara erdigunean jartzeko, euskarak behar gaituela ikusarazteko, euskara jakiteaz gain erabiltzea ezinbestekoa dela aldarrikatzeko,....

Eskertuko genuke aurtengo KORRIKA ere presente egotea gure udalerrian eta zuen aldetik KORRIKA bertaraino iristeko ahalegina egitea, sartu-irten bat egitea gutxienez.

Gure eskaera aintzat hartuko duzuelakoan, har ezazue gure agurrik zintzoena.

Legazpin, 2022eko urtarrilaren 20an

Sin. Koldobike Olabide Huelga
Alkatea